



retos de igualdad:

nuestro de cuaderno de bitácora

berdintasunerako erronkak:
gure nabigazio-egunkaria



Lanean berdintasuna lantzeko testuinguru berriak



→ **Aldaketa sakonak lanean**

→ **Aldaketa sakonak emakumeen errealitatean eta paperean**


→ **Aldaketa sakonak desberdintasun adierazpenetan**

retos de igualdad: nuestro cuaderno de bitácora

DESBERDINTASUNAREN

ADIERAZPENAK

**Geroz eta arinagoak, geroz
eta ikustezinagoak**



Desberdintasunaren adierazpenak

→ Derbendintasunak “azaltzen” zituzten **argudio tradizionalak** ez dira jada baliagarriak (hezkuntza eskasa, seme-alaba ugari, sektoreen arabera “gaizki kokatutako” emakumeak...)

→ Giltza ez da “zer”, “**nor**” baizik. Horregatik, helburua “helburu mugikorra” da, sistema patriarkalak egokitzeko eta berritzeko duen gaitasun handia erakusten duena

→ **Lanaren sexu-banaketaren** euskarriak zalantzan jarri gabe publikoan emakumearen partaidetza sustatzeko ereduak goia jo du. Ezinezkoa da integrazio iraunkorra lortzea desberdintasunetan oinarrituta dauden egiturak eta kulturak aldatu gabe.

→ Gure laneko testuingurua etengabe aldatzen ari da, baina **langabezia tasa txikiagoa** du

→ Horregatik guztiagatik beharrezko da **lanaren eta berdintasunaren inguruko politikak sakonki berrikustea.**



Zer behar dute politikek berdintasuna txertatzeko?

Premiazko aldaketak behar ditugu laneko berdintasunaren inguruko politikan

Norabide berria

Berdintasun-politiken eduki berrien finkapenerantz (partaidetzaren helburua eta ereduaren transformazioa uztartzeko)

Maila berria

Berdintasun politiken kokapen berri baterantz (mainstreaming erreala, baliabide argiekin eta politika hauen ponderazio errealekin)

Tratamendu berria

Emakumeen (eta gizonen...) arazoak eta premiak aztertzeko modu konplexuago, sakon eta integral baterantz, nahitaez politiken bereizketa tradizionaletik haragokoa

Protagonistekin eta haiengandik

*Nahi, ahal izan eta badakien jendearekin eta, bereziki, **EMAKUMEEN PROTAGONISMOAREKIN***

Zer behar dute politikek berdintasuna txertatzeko?

Aldatzeko prozesu parte hartzaile gisa, berdintasuna politiketan modu ERREALEAN txertatuko dela onartzea. Ondorengoak horrekin lotuta daude:

- Arriskuak onartzea
- Erakundearekin lotutako aldaketak
- Hizkuntzarekin lotutako aldaketak
- Negoziazioak eta itunak, baina baita erresistentziak eta tentsioak ere
 - Jarraipena (epe laburreko, ertaineko eta luzerako jarduerekin)
 - Errealismoa, baina baita helburu berriak finkatzea ere
- Beti hauskor eta leheneragarri diren lorpen batzuen etengabeko defentsa
- Aurrerapenak onartzeko eta sustatzeko baikortasuna, eta zailtasunak onartzeko eta aurre egiteko zentzu kritikoa
- Ez gara burokrazia hotzari buruz mintzo, bizitza interesgarriari buruz baizik: **'Berdintasuna bizitza da'**

Kideitun hartutako ikusmoldea

Atzetik zetorren bide kolektibo baten produktua da, aurrera egin behar duena onurarik ekarriko badu.

Ikusmolde horren helburuak honako hauek dira:

→ **Esparru horietan prozesu errealak aurrera eramatea eta emaitza errealak lortzeko nahia** (esperientzia pilotuak erakundeetan)

→ **Paraleloan, beste EQUAL proiektu batzuekin hausnarketa- eta irakaskuntza-gune bat konpartitzea, eta ondare hori taxutzea.** Horrela, ezagutza kolektiboa baliagarria izango da atzetik datozenentzako, eta ez da galduko –hainbestetan gertatzen den bezala– etengabe, berriro hastera derrigortzen gaituela (nabigazio-egunkaria)

Berdintasunerako nabigazio-egunkaria

→ **Zer da?** 'Berdintasunerako Enplegu eta Prestakuntzako Agentek' proiektuaren Ardatzarekin lotuta antolatutako jardueren baitan egindako topaketen ondoriozko produktua.

→ **Zein da bere edukia?** Topaketa horietako guztietako eztabaiden ondorioak

→ **Nork hartu du parte?** Euskadiko enplegu eta prestakuntzako agenteek, Autonomia Erkidego honetako EQUAL proiektuei egindako erreferentzia bereziarekin

Berdintasunerako nabigazio-egunkaria

→ EQUAL proiektuak Euskadin

- >> ARIADNA
- >> AURRERATU
- >> DEND@
- >> DONOSTIA AUZOLAN
- >> ENPLEGUAREN BIDEK
- >> GERTU
- >> HAZILAN
- >> KIDEITU
- >> LAMEGI
- >> LANERAKO BIDEAK
- >> MIKROGUNEAK



Berdintasunerako nabigazio-egunkaria

→ Nola dago egituratuta?:

- ✓ **Nortzuk gara?** Esperientzian parte hartzen duten erakunde eta proiektuen aurkezpena.
- ✓ **Zertan egin dugu lan?** Nabigazio-egunkaria egiteko jarraitutako prozesuaren deskribapena.
- ✓ **Zein izan da gure esperientzia?** Proiektuz proiektu, azken horiengan genero-ikuspegia txertatzeko esperientziari egindako erreferentziak.
- ✓ **Zer proposatzen dugu?** Emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez agenteek egindako proposamenak.

Berdintasunerako nabigazio-egunkaria

→ **Nola eutsi diogu indar betez?**

✓ **Hiru topaketa eginda:**

- 'Berdintasuna banatzea eta eraikitzea - Compartir y Construir la Igualdad' (2006/12/14)
- 'Berdintasuna enpresa-sorkuntzako eta enpresak indartzeko prozesuetan - La igualdad en los procesos de creación de empresas y fortalecimiento empresarial' (2007/02/27)
- 'Berdintasuna kolektibo ahulen barneratze soziolaboraleko prozesuetan - La igualdad en los procesos de inclusión sociolaboral de colectivos vulnerables' (2007/05/22)

✓ **on-line elkartrukea:** 'Nabigazio-egunkaria'-ren zirriborroa 'Berdintasunerako Enplegu eta Prestakuntzako Agenteei' bidaltzea ekarpenak egiteko.

Berdintasunerako nabigazio-egunkaria

→ Zertarako balio izan digu?:

- ✓ EQUAL proiektuen berdintasuneko esperientzia jasotzeko (transferentziarako funtsezko elementu denez)
- ✓ Sentsibilizazio/orientazioaren euskarri/produktua izateko, hurrengo laneko esku-hartzeak diseinatzeko.

Nabigazio-egunkariaren ondorio nagusiak: berdintasunerako erronkak



Ondorio nagusiak

✓ **Nola txertatu da berdintasuna Euskadiko EQUAL proiektuetan?**

- Berdintasun printzipioa jardueren diseinuan eta planifikazioan txertatzea.
- Konpromisoak sinatzea berdintasun printzipioa GE-en funtzionamenduan eta proiektuaren exekuzioan ager dadin.
- Berdintasunerako lantalde espezifikoak sortzea
- GE-en barruan berdintasunerako erakunde adituek parte hartzea
- Berdintasun alorreko aholkularitza aditua (Berdintasun teknikak edo kanpoko aholkularitzak)
- Hizkuntza ez sexista eta barneratzearekin lotutako komunikazioa erabiltzea (barnekoa eta kanpoko)
- GE-en parte hartzen duten erakundeentzako generoarekin lotutako sentsibilizazioa/prestakuntza
- GE-ko erakundeetan bertan bateragarritasunarekin lotutako neurriak txertatzea
- Jarraipen- eta ebaluazio-sistemetan genero-adierazleak txertatzea.
- Kontratuen esleipenean genero-espezializazioko irizpideak txertatzea
- Lortutako emaitzetatik abiatuta, berdintasun alorreko kontrol-mekanismoak eta desbiazio posibleen arrazoiak aztertzea.

Ondorio nagusiak

✓ **Berdintasunerako zein neurri espezifiko garatu dira?**

- Gaikako esparru ezberdinetan emakumeen eta gizonen errealitate berezituari buruzko ikerketak
- Berdintasunaren inguruko behatoki iraunkorrak
- Emakumeek lan-munduan sartzeko dituzten aldeko/kontrako ezaugarriak ezagutzeko metodologia kualitatiboak.
- Emakume onuradunentzako Garapen Pertsonaleko Mintegiak
- Jardueretan parte hartzeko edo kuotak ezartzeko emakumeei lehentasuna ematea.
- Enpresa kolaboratzaileak/kontratatuak genero-kontuetan sentsibilizatzea
- Pertsona onuradunak genero-kontuetan sentsibilizatzea
- ETE-etan, mikroeteetan, gizarte ekonomiako enpresetan, merkataritza bezalako sektoreetan... bateragarritasun neurriak txertatzeko estrategiak.
- Berriro lanean hasten direnak lan-munduan txertatzeko metodologiak
- Berdintasun alorreko jardunbide egokien dokumentuak eta txostenak
- Merezimenduak finkatzea (familiaz arduratzen diren enpresak, emakume ekintzaileak,...)
- ...

Ondorio nagusiak

✓ Zeintzuk dira berdintasunerako erronkak...?



- ... lan-munduratzeko proiektuetan (EQUAL 1 ardatza)



- ... enpresa-sorkuntzako eta enpresak indartzeko proiektuetan (EQUAL 2 eta 3 ardatzak)



- ... bizitza pertsonala eta familiarra bateratzeko proiektuetan (EQUAL 4 ardatza)



Berdintasunerako erronkak

1 ARDATZA

✓ KOLEKTIBO AHULEN BARNERATZE SOZIOLABORALERAKO PROIEKTUAK

1. *Lana topatzeko zailtasunak dituzten kolektiboen lan-eskaintzaz jardutea (enpleagarritasuna)*

- Gizartean nahiz lanean baztertuta geratzeko arriskua duten bateko eta besteko kolektiboen profilari, eskariei, beharrei... buruzko ikerketa, genero-ikuspegia kontuan hartuta.
- Prestakuntza eskumen teknikoetan, baina, bereziki, zeharkako eskumenetan.
- Pertsona onuradunen protagonismoa.
- Programa integralak eta pertsonalizatuak egitea.
- Txertaketaren aurreko eta ondoko momentuetan akonpainamendua sendotzea.
- Lanpostuan ikasi ahal izatea (praktikak enpresetan).
- Sentsilizazio-balibide berriak diseinatzea eta enpleguarenganako motibazioa.
- “Oinarrizko errentak” eskuratzeko bide eta formula alternatiboak finkatzea.
- Gizonak ere inplikaturik dituzten bateragarritasunerako estrategiak.
- Kultura aniztasunaren aldeko ikuspegia.
- Esku-hartzeetako onuradunen artean sareak sortzea.

Berdintasunerako erronkak



1 ARDATZA

✓ KOLEKTIBO AHULEN BARNERATZE SOZIOLABORALERAKO PROIEKTUAK

2. *Lana topatzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboen lan-eskariaz jardutea (enpresaritza)*

- Enpresariek behar dituzten langileei buruzko ikerketak (gehien eskatzen dituzten gaitasun teknikoak eta zeharkakoak).
- Lan-merkatuan hutsik dauden lekuei erreparatzea (lan-munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzako enplegu-txokoak).
- Lan-munduan sartzeko eta partaidetza demokratikorako bide gisa kooperatibismoa sustatzea.
- Kontratazio publikoen esparruko merkatu eta klausula sozialak sustatzea.
- Enpresen barneratzea indartzea.
- Bedintasuna ESK-RSC-ko funtsezko printzipio gisa txertatzea.
- Enpresen partaidetza aktiboa estrategia eta politika publikoak sortzeko.
- Enpleguaren kalitatea hobe dezaketen neurriei arreta berezia eskaintzea.
- Enpresarien, barneratzeko enpresen eta abarren arteko truke- eta ikaskuntza-sareak.
- Erakunde publikoei finkatutako legeak betearazi ditzatela eskatzea: Berdintasun Legea, EGIL-LISMI, etab.



Berdintasunerako erronkak

1 ARDATZA

✓KOLEKTIBO AHULEN BARNERATZE SOZIOLABORALERAKO PROIEKTUAK

3. *Enplegu-zerbitzuek lan-eskaintza eta eskariaren arteko bitartekari gisa duten papera hobetzea*

- Aipatutako bi dimentsioen (lan-eskaintzaren eta eskariaren) egoeraren eta premien diagnostikoak.
- Genero-berdintasunean eskumenak dituzten taldeak –barnekoak edo kanpokoak-.
- Errealitate horiei lagunduko dieten zerbitzuak eta programak sustatzeko eta sortzeko borondate politikoa.
- Zerbitzu eta sailen koordinazioa: hezkuntza, enplegua, gizarte-zerbitzuak,...
- Erakunde mailako trukerako eta ikaskuntzarako sareak.
- ‘lobby’ motako presio-mekanismoak.
- Etengabeko jarraipen eta ebaluaziorako mekanismoak, genero-berdintasunarekin lotutako adierazleak dituztenak.
- ‘Auditoretza sozialeko’ sistemak.
- Programen jasangarritasuna eta egonkortasuna bermatzea.



Berdintasunerako erronkak

1 ARDATZA

✓ KOLEKTIBO AHULEN BARNERATZE SOZIOLABORALERAKO PROIEKTUAK

4. *Inguru kultural, familiar eta sozialean eragina izatea*

- Berdintasunaren, aniztasunaren eta barneratzearen aldeko balioak finkatzea.
- Familia-ingurua, kolektibo horien autonomiaren eta independentziaren alde, familien laguntza lortzeko.
- Tokiko lidergoa, politikoen, elkarteen, irakasleen, hedabideen, berdintasunerako erakundeen, emakume elkarteen eta abarren arteko itunak sustatzeko.
- “Gizonezkoen” ingurua lantzea, generoarekin lotutako balioak, rolak eta estereotipoak beste modu batera definitze aldera.

retos de igualdad: nuestro cuaderno de bitácora

Berdintasunerako erronkak



2 eta 3 ARDATZAK

✓ ENPRESA-SORKUNTZAKO ETA ENPRESAK INDARTZEKO PROIEKTUAK

1. Emakumeen artean kultura ekintzailea sustatzea.
2. Emakumeen enpresa-jarduerarentzako lagungarriagoa izango den giroa bultzatzea
3. Emakume ekintzaile eta enpresariak finantza-aukera handiagoak izan ditzaten ahalegintzea
4. Emakumeen enpresario papera indartzea
5. Emakumeen enpresak hazteko eta finkatzeko prozesuak martxan jartzea
6. Emakumeen enpresen sektoreak hobetzea eta sektoreen arabera banatzea
7. Emakume enpresarien sareak sortzeko eta indartzeko laguntza ematea
8. Boterezko eta erabakiak hartzeko guneetan emakume enpresarien partaidetza sustatzea
9. Enpresarialitatea bultzatzeko erakundeen programetan genero-ikuspegia txertatzea
10. Esparru honetan esperientziak trukatzeko eta itunak lortzeko lan egitea.



Berdintasunerako erronkak

4 ARDATZA

✓ BIZITZA PERTSONALA, FAMILIARRA ETA PROFESIONALA UZTARTZEKO PROIEKTUAK

1. Ardura banaketaren aldeko balio-aldaketari bide egitea

- Bateragarritasun neurriak eskatzen dituzten gizonen kopurua areagotzea.
- Zainketaren ardura banatzen duten gizonen erreferente alternatiboak aurkeztea eta gizonen parte hartzea sustatzea maskulinitasunari eta ardura-banaketari buruzko hausnarketa-taldeetan.
- Erakunde publiko eta pribatuak sentsibilizatzea eta azken horiei baliabideak ematea, gizartearekiko oro har duten ardura banaketari ekin diezaioten eta, horrela, bizimoduaren eta lanaren arteko bateragarritasuna erraztu.

Berdintasunerako erronkak



4 ARDATZA

✓ BIZITZA PERTSONALA, FAMILIARRA ETA PROFESIONALA BATERA UZTARTZEKO PROIEKTUAK

2. Bateragarritasunaren mesederako lanaren ordutegiak eta antolakuntza aldatzea

- Bateragarritasunak erakundeen funtzionamendu-moduetan dituzten oztopoak eta ondorioak zein diren jakitea.
- Malgutasun-neurriak jartzea enpresetan (ordutegiarekin, lanaldiekin, baimenekin eta mugikortasunarekin lotutako neurriak)
- Enpresarientzako denboraren kudeaketari buruzko prestakuntza.
- Bateragarritasun-arloan erakundeek martxan jarritako ekimenei laguntzeko, Administrazioak pizgarriak ematea (pizgarri ekonomikoak, merezimendu publikoak,...).
- Erakundeetan berdintasunerako neurrien ezarpenak enpresentzako dituen onurak azaltzeko informazio-kanpainak.
- Enpresariak urrutiko lanaren abantailen inguruan sentsibilizatzea eta azken horren aplikazioa erraztea, gizon zein emakumeentzako.
- Gizarteko agenteentzako prestakuntza genero-ikuspegiko negoziazio kolektiboari buruz.



Berdintasunerako erronkak

4 ARDATZA

✓ BIZITZA PERTSONALA, FAMILIARRA ETA PROFESIONALA BATERA UZTARTZEKO PROIEKTUAK

3. Bateragarritasunaren aldeko zerbitzuak areagotzea eta hobetzea

- Zainketa- eta arreta-zerbitzuen estaldura mendeko pertsonei ere helaraztea.
- Zerbitzu horien ordutegiak eta lanaldiak malgutzea, eta lanaldiekin eta laneko ordutegiekin bateragarri izango direla bermatzea.
- Zerbitzu horien kalitatea bermatzea.
- Sektore honetako zerbitzu-eskaintza guztia aurkezten duten baliabide-mapak prestatzea.
- Behar duten familientzat bateragarritasunerako zerbitzu edota laguntzaren estaldura publiko egokia jartzea.
- Sektoreko enpleguaren prekarizazioaren aurka borroka egitea, lan hori duintzea eta gizonak lan mota hauetara erakartzea.

Berdintasunerako erronkak



4 ARDATZA

✓ BIZITZA PERTSONALA, FAMILIARRA ETA PROFESIONALA UZTARTZEKO PROIEKTUAK

4. Bateragarritasuna antzemateko lankidetza eta itunak sustatzea

- Erakunde hauen guztien artean lanerako plataforma bateratuak sortzea.
- Udalerri, probintzia, EAE eta Estatu mailan bateragarritasunerako zerbitzuei, laguntzei eta esperientziei buruzko informazio guztia eskuratzeko bideak.
- Esparru honetako ekimen arrakastatsuak eta berritzaileak konpartitzea.
- Emaizak etengabe hedatzea.
- Lankidetzako lanari eta tokiko itunei lehentasuna ematea.

Erronka handia

✓ **Berdintasunerako Agenda**



ZER?

NOLA?

ZENBAT?

NORTZUEK?

NOIZ?

NON?

Erronka handia

✓Berdintasunerako Agenda



Emakumeen laneko berdintasunerako **ESTRATEGIA berriak** finkatzea eta balioztatzea, emakumeen premia errealekin eta lan-merkatuaren eta aldaketa prozesuan dagoen ekonomiaren erronkekin bat datozenak.

ZER?

- **Emakumeekin batera lanean jardutea:** beren barne-ikuspegiari buruz, beren enpleagarritasun profilei buruz, jarduerako eta botereko lantoki berriak betetzera bultzatzeari buruz eta abarrez jardutea, “emakumeen lidergoa” finkatzen laguntzeaz, enpresari gisa duten papera eta garapena sustatzea, generoari eta IKT-ei buruzko ekintza-bideak sustatzea, aurrerantzean emakumeena kolektibo ahula balitz bezala ez tratatzea eta bazterkeria orokorrari aurre egitea,...
- **Lan-inguruez jardutea:** aipatu inguruen gainean eragina izatea, emakumeen lanari berriro ere merezi duen balioa ematea, profesionaltasun kontzeptu berria eraikitzea, laneko eta bizitzako ordutegiak eta lekuak berregituratzea, ...
- **Kultura-inguruen gainean jardutea:** emakumeen masa kritikoak eta sareak sortzea, abangoardien papera indartzea, “aldaketaren pizgarriak” izan daitezkeen emakumeengan eragina izatea, ordezkapen lekuetan emakumeen partaidetza sustatzea...

Erronka handia

✓Berdintasunerako Agenda



Praktikan aipatu estrategiak ezartzeko urratsak emateko

OPERATIBA finkatzea

NOLA?

- **Ikuspegia:** “Generoari buruzko corpusa” ezartzeko ezagutza sortzea eta konpartitzea. Korpusak kontzeptuak argitu behar lituzke (genero eta generiko ez dira gauza bera, ezta berdintasuna eta “berdin da” ere), eta diseinuan, programazioan, exekuzioan eta ebaluazioan eredugarri izan.
- **Genero-ikuspegia kontuan hartzen duen ebaluazio kritikoa:** esku-hartzeen errealitatea beste ikuspegi batetik ikustea eta aztertzea (generoaren beharra, informazioaren eta adierazleen kalitatea, ikuspegi kualitatiboa txertatzea, egiazko emaitzetara eta eraginetara iristea,...)
- **Esparrurako lanabesak:** esku-hartzearen esparru ezberdinetan genero-ikuspegia txerta dadin, metodologirako baliabideak (gidak, prestakuntza, eskuliburuak, lan-tresnak, ...) finkatzea.
- **Funtsezko ideiak:** gai hauen inguruko helburu politiko mobilizatzaileak sustatzea eta bultzatzea.

Erronka handia

✓ Berdintasunerako Agenda



NOLA?

- **Konpromisoa:** goi mailako konpromiso politikoa erraztea, enplegu-politikako arduradun gorenak eta berdintasunerako erakundeak barne hartuko dituen.
- **Berdintasuna eraikitzeko gune aktiboa:** egitura-politikaren “berdintasunerako” jardueretarako erreserbatuta dauden guneak berrikuntzarako ingurune bihurtzea.
- **Eskuhartze-sarea zabaltzea:** aztertzea zer dela-eta eragile jakin batzuk ez diren programa mota hauetan egoten (hala nola, enpresak eta enpresa-erakundeak, IKT operadoreak, politika sektorialen arduradunak, etab.) eta beren partaidetza sustatzeko mekanismo egokienak zeintzuk izan daitezkeen ikertzea.
- **Sare bertikalak:** “nahi, ahal izan eta badakiten” emakumeak izateaz gain, erabakiak hartzeko esparru guztietan dauden (Europa, Estatua, Euskadi, tokikoa...) “emakume konprometituen” sareak ezartzea.
- **Auditoretza soziala:** funtsezko sektoreen arteko egitura-politikan emakumeek duten partaidetzari buruzko informazio eta prestakuntza jarduera bat egitea eta helburu espezifikoaren inguruko “zaintza aktiboko” sareak sustatzea.

Erronka handia

✓ **Berdintasunerako Agenda**



ZENBAT?

**Eragin kuantitaboak dituzten politika
kualitatiboak eskatzea,**

finantza-iturri gardenekin eta lortu
beharreko helburuaren hedadurarekin bat
etorriz

Erronka handia

✓Berdintasunerako Agenda



Ezinbestekoa da prozesu honen **lidergo indartsua** ezartzea lorpenak leheneragarriak diren eremuan. Beharrezkoak dira:

- **Aldaketako dinamiken katalizadoreak eta katalizatzaileak**
- **Idea sortzaileak**
- **Informazio eta aholkularitza aditua eskaintzen duten hornitzaileak**
- **Elkartzeko eta sareak indartzeko guneen sustatzaileak**
- **Iritzi publikoko sortzaileak**

Laburbilduz, gizon eta emakume dinamizatzaileen beharra duen agenda, aipatutako horiek gabe ezinezkoa bailitzateke.

Erabakiak hartzeko eta aplikatzeko prozesuetako kate horizontal eta bertikal osoan koordinazio eredua –formala eta informala- eta sinergia argiak ezartzen funtsezko lanpostuetan konprometituta dauden emakume eta gizonak behar dira.

NORTZUEK?

BERDINTASUNA PERTSONEI GERTUTIK BEGIRATUZ SOILIK ERAIKI DAITEKE



*“Ez ditugu gauzak diren bezalakoak ikusten,
garen bezalakoak baizik”
Anais Nin*

*“Gure askatasuna determinismoaren eta determinazioaren
arteko tentsioaren ondorioa da eta nabigatzea borondateak
determinismoaren gainean lortutako garaipena da.”*

*“Ez gara askeak jasotako izaera baten ondorioz, borrokatutako
proiektu baten ondorioz baizik”*

*“Gure kulturak dituen premiazko betebeharrak handien artean bat
zehaztu beharko banu, subjektu sortzaile baten ideia
berreskuratzea hautatuko nuke ez bairik gabe”*

José Antonio Marina

*“Transformazio proiektu bat beti izan ohi da autotransformazio
proiektu bat” Ulrich Beck*



Muchas gracias / *Eskerrik asko*